

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Behatoki batek komunitatearen osasun-beharrak hautematen utziko du eta jarduerak Nafarroako zonalde bakoitzeko egoerara bideratzen

*Komunitatearen Osasun Behatokiak Nafarroako osasun kolektiboari lotutako informazioa sortu eta aztertuko du eta tokiko osasun-eragile guztiek (udalak, osasun-zentroak, gizarte-zerbitzuak, elkarte edo enpresak esaterako) elkarrekin egindako ekintzen alde egingo du, bere zonaldeko osasuna hobetzeko eta berdintasunik ezak murrizteko*

Asteazkena, 2016.eko azaroak 23

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran jakin du Komunitatearen Osasun Behatokia martxan jarriko dela, Nafarroako osasun kolektiboari lotutako informazio guztia sortzeko, aztertzeko, batzeko, antolatzeko eta komunikatzeko tresna dena. Horrenbestez, administrazio publikoek eta osasuneko beste eragile batzuek beraien politikak nahiz jarduerak lurralde-eremu bakoitzeko egoera zehatzera egokituko dituzte eta berdintasunik ezak murriztu ahalko dituzte.

Biztanleen osasunean eragiten duten gizarte nahiz ingurumeneko faktoreen azterketa sistematikoa, gaixotze-tasa, heriotza-tasa adierazleena eta haien bilakaera, bai eta osasuneko berdintasunik ezen azterketa ere dira Behatokia osatuko duten informazioaren hiru zutabeak. Osasun Departamentuko kontseilari Fernando Dominguezek [azaldu](#) duenez, osasunari lotutako errealitate horien guztien berri izatea ezinbestekoa da alor horretan programa, plan eta politika egokiak egiteko, eraginkorrak eta eragingarriak direnak.

Hala, Komunitatearen Osasun Behatokia azterketak eta txostenak hiru esparrutan egiten ari da:

1.- Zonalde geografikoen araberako profila: osasun-adierazleen multzoa eta erabakigarriak hainbat maila geografikotan: Nafarroa, Osasun Arloa, Eskualdea eta Osasunaren Oinarrizko Zonaldea. Honako hauei lotutako adierazleak ageri dira: heriotza-tasa, gaixotasuna, bizitza-estiloak eta -baldintzak, demografia, osasun-zerbitzuak eta osasunerako baliabideak edo aktiboak. Datozen hilabeteetan Nafarroako zonalde guztietarako prest izatea aurreikusten da.

2.- Osasunari lotutako gaiak: lehen azterketen artean, aipagarriak dira honako hauen gainean egindakoak: haurren obesitatea, emakumeen artean biriketako minbizia areagotu izana eta horrek tabakoarekin duen lotura, edo osasunean dauden zenbait berdintasunik ezaren gaineko azterketa bat.

3.- Aktiboak osasunean: zonalde bakoitzean dauden baliabideak

batzea biztanleen osasunari eusteko eta hobetzeko, ariketa fisikoa egiteko dauden espazioak adibidez, laguntza sozialeko taldeak, eskola osasungarriak edo ostalaritza arduratsuaren zerbitzuak...

Behatokiak sortutako informazio guztia laster webgune batean eskuratu ahalko da; haren bidez, egindako azterketen emaitzak jakinaraziko dira eta herritarren iradokizunak eta ekarpenak jasoko.

### **Proiektu estrategikoa**

Komunitatearen Osasun Behatokia Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko proiektu estrategikoetako bat da legealdi honetan, Osasunaren Mundu Erakundeak egindako gomendioei jarraiki. OMEk komunitatearen osasun-behatokien misio orokor gisa onartzen du "osasun-adimen bat" erraztea eta, hari esker, tokiko osasun-beharrei hobeto erantzun zaie eta eraginkortasun handiagoarekin, hainbat sektore, instituzio, erakunde, enpresa eta gizarte zibilarekin lankidetzan.